

Koldo Aldalur

KAZETARIA

Galderak

Zazpi atedun Tebas hura, nork eraiki zuen? Liburuetan Errege izenik baizik ez da ageri...". Eskerrak bere buruari —eta bide batez gainontzekoon kontzientziari— antzinako eta ez hain antzinako gertaerei buruzko galderak egiten zituen langile hark ez zuen kirol kazetaritzan lanik egiten. Bestela ez zen abesti laburra izango!

Abantaila bat badugu horretan ari garenek: aspertzeko betarik ez. Esaterako, har dezagun lau koadro t'erdiko txapelketa, edo aspaldi honetan antolatutako ia beste edozein lehia. Txapelketa ala torneo? Euskadiko txapelketa? EAE? Euskal Herrikoa? Pentsatzekoa da txapelketa ofiziala izan dadin dagokion federazioaren araupean jokatu behar dela, ezta? Parte-hartzaile denak Aspekoak edo Asegarcekoak badira, irabazleak ba al du tokirik lehengo txapeldunen zerrendan? Ba al da bere maila erakusteko aukerarik gabe geratu den kirolaririk?

Kirola saldu beharreko produktua da, eta jakina, errazagoa da Buruz Buruko Txapelketa saltzea, Aspe eta Asegarceko Pilotarien Arteko Torneo saltzea baino.

Eta urtean zehar jokatzaren diren nazioarteko txapelketak? Nazioartekoak, Iparraldeko pilotariren bat tartean delako? Eta asturiar edo errioxar bat bada praka zuriak jantzita?

EHPK-k biltzen eta ordezkatzen al ditu gure pilotari afizionatuak? Ala Munduko Pilota Kon-



DANI BLANCO

teiluak? Nazioarteko Pilota Federazioaren magaletik urrun antolatutako nazioarteko txapelketari, nolako arreta jarri beharko genioke? Handiagoa, “gureak” direlako? Edo txikixea-goa, ofizialtasunaren zigilua falta zaielako?

Zer tratamendu eman gure mugekin muga egiten duten herrialdeetako kirol taldeei eta kirolariei? Gureak? Kanpokoak? Informazioaren zerrendan Espainia-Ukraina garrantzitsuagoa al da Italia-Alemania baino? Alonso ala Hamilton da etxekoagoa? Noren etxeari buruz ari gara? Futbolari atzerritarrek Espainiako ligara “datoz” ala “doaz”?

Egin dezagun demagogia ariketatxo bat. Goitibera txapelketa antolatuko dugu. Ilusioz betetako gidari ausartak maldan behera botatzeko federazioaren beharrik ez dugunez, libre gara nahi dugun bezala deitzeko antolatu dugun lehiari. Zer iruditzen zaizue, Kontinente Arteko Goitibehera Txapelketa deitzen badiogu? Hamar lagunek izena ematen badute, bale gara!

“Galdera gehitxo eta erantzun gutxi, eta gainera, xestra jarri nahia”, pentsatuko duzu. Baina nonbaitetik lehertu

beharra nuen. Besteak endredatu nahia barkagarria izan daiteke puzzle handi baten pieza txikiak garelako, baina geure burua engainatzea, ez.

Hitz aspertua utzi eta hel diezaiodan serio lanari, Galaxien Arteko Hirugarren Kanika Txapelketako txapeldun berriari elkarriketa egiteko geratu naiz eta! ■

« Kirola saldu beharreko produktua

da, eta errazagoa da Buruz

Buruko Txapelketa saltzea, Aspe

eta Asegarceko Pilotarien Arteko

Torneoa saltzea baino »

TXANDAN

Igor Estankona



Edo beste Amerika. Amerika bihozbera bezain erreala baita, zoritxarrez, aurka gauzkan Amerika. Hegoaldeko

estatuei egindako keinu lez, Esklabo Iheslarietzako Legea onetsi zuten 1850ean: esklabo izandakoak harrapatu eta kotoiaren infernu gorrira itzularazteko modua errazten zien tratulariei. Iparraldeko beltzek legearen aurkako erresistentzia antolatu zuten orduan. Fillmore presidentea auzitara eraman zuten hura sinatzearen, eta Daniel Webster senataria ere bai, babesa ematearen. J. W. Loguen borroka horretan nabarmendu zen. Ugazabaren zaldia harturik egin

Benetako Amerika (II)

zuen ihes, eskolatua zen eta abade ari zen Syracuse; lepoko zuria, traje iluna, behar bada eraztun

urre-antzeko bat, dena dela... berak esana da:

“Ordua iritsi da sumisio itxura hau utzi eta erronka botatzeko, eta Fillmore jaunari eta Webster jaunari esateko, gure aurkako neurri hori indarrean sartzeko gura badute ehiza-txakurrak bota beharko dizkigutela... Nik nire askatasuna zerutik jaso nuen, eta harekin batera aske izateko dudan erresubidea defendatzeko mandatua... Ez dut lege hau errespetatzen —ez diot beldurrik—, ez noa betetzera! Legez kanpo jartzen nau, eta nik ilegala dela diot”. ■